

LINO AKESOLO
BIZKAIKO ALDUNDIAK OMENDUA
(Itzaldiak)

1989ko apirillaren 4a Euskal Kulturarentzak egun aipagarria izango da: Bilboko Erzilla Hotelean 9 tomoko «Diccionario de Autoridades» edo «Euskeraren Lekukoen Hiztegia» aurkeztu zan. Taldean egiñtiko lan andi orren zuzendari eta egille nagusia Lino Akesolo izan da. An ikusi genduan bezelako aurkezpena, gitxitan ikusi izaten da. Andiki, lanari dagokion bezelako aurkezpen oparoa.

Baiña gaurko artikulu onen elburu beste egun bateko ospakizuna adieraztekoa da: 1989-IV-7an Bizkaiko Aldundiak Lino Akesolori eskeini eutsen omenaldi ederra. An azaldu ziran euskeralogo onen merezimenduak; an ikusi genduan dantzariak agurra emoten, Tomas Uribebeberria pozez omenaldiaren arrazoiak azaltzen, gero E. Erkiagaren itzaldia, Azpillagaren bertsoak, Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Aldun Nagusiaren itzakiri Plaka bat eskeintzen, eta gero Lino Akesoloren itzaldi labur eta mamintsua. Azkenean Sarrigarte margolariak egiñtiko lauki ederra, Karmel-zenbaki onetan ikusten dozuena, ikusgarri zana ikusgai ipini ehen. Lauki an Aldundiko Bibliotekan jarriko gabe.

Omenaldi ori eskeintzeko, E. Erkiagaren itzaldiaz asiko gara. Eimen idazle onen itzak:

Jaun-Andreok,

Bizkaiaren jauregi honetan kultura hariko gaurko jaiari txeraz hartzen dogun aita Lino Akesolo, Oban jaioa da, Dimako auzoetarik baten. Diman, Baltzola koba dago; hantxe, berezkoa dan Jentilzubi be.


Inguru haretan diabrua ezezik -«Beste mutilla» zaharren berbetan- laminak eta sorginak be, nasai ibili izan dira gizaldietan, Dimako Petralandan batzanduten zirean Bizkaiko Akelarre batzarrak, zapatu gauean.

Diman jaioriko beste gizon bat Simon Bernardo Zamakola izan zan, XIX g. mendearren hasieran, tamalgarriro ospatsu gertatua.

Labur zurrian esan daigun, aldi haretan Bilbo ta bere portuaren garapenaz, auzokoeck, elizateck gaitziturik, ondanimuz egozala, Bilbori eztopoak jartea egoki zala uste izan eben. Zazpi kalcedun uria, zelan estutu, zelan sosegau? Beste portu barri bat egin da. Nun? Gernika haranean, zehatzago Mundakako barran. Asmo hori 1792 g. urtekoa izan arren, bederatzi urtean lo egon zan, Frantziako matxinadea zala ta. Ostera, 1801 goan, eta orduan Zamakola zan aurrena, portu hori Ibaizabalen, arean bere hementxe, Abandon egingo eben. Haren izena, «Puerto de la Paz».

Bilbotarrak larri, halakorik gerta ez zedin, ahaleginak egingen hasi zirean. Alperrik. Horrez ganera, harik hiru urtera, Zamakola urduriak soldautza-moduaren aldaketea aurkeztu eban eta Gernikako Batzar Nagusietan onartua izan zan.

Elorrioak! Begoñarrek, mahatsorriek hasarre bizian Bilbora jatsi eta hor entzuniko argitasunek euren gogorik ez bete, ta euren fusilak hartzeko baumena lorturik, Abandoko Bizkai-
-armategian iskiloak hartu ebezan eta Bilboko kaleetan zehar harro harro, jentearen ikusgarri ibili. Hurrengo, abandotarrak be berotu zirean, eta Armategian euren fusilez jabetu, Bilbora joan, Bizkaiko agintari batzuk harrapatu, honuntz crakarri eta Albian preso sartu zituen. Horra hor Zamakoladea borbor irakiten, ganezka noiz egingo.



Bilbotarrak lehen baino larriago, bakea zelan nondik egingo. Otera, lasterrean, ondorio negargarria: beste lurraldeetarik Bizkaira tropak heldu ziren. Militarrek agintepide guztiak euren menpe jarri eta bakea zeharo lazkituz, bazterrak lorrindu.

Oraingoan, Bizkaiko Aldundiak deitua, Zamakola erdi-jautxu urduria barik, Dimako beste seme bat heldu da Begoñatik Abandora, duintasunez ta gizabidez heldu be. Gizon zuzenzalea berau, horraitino, azken gerratean, hogetabost urte zitu en eta, gudarien kapeillau izatea jazo jakon.

Gerrate ostean, galtzaileak ez ei dau ezetariko eskubiderik. Harako eguncan, beste batzuekin, epaimahaikoen aurrera daroc. Aita Leon alboan, laguna lagun zakidaz. Botoidun eta ezpatadun epaileek egia osoa jakin gura. Aita Leoni zutundu daitela dintooc. Erantzuna «bai» ala «ez», besterik ezin.

- Zu zeu, nazionalista vasco izan al zara?

Aita Leon gizarajo haundiak, estu ta larri, erantzun motxa:

- Bai.

- Jesarri zaitetz.

Hurrengo, Aita Lino jesarleikutik jagierazo dabe. Itaune be-
rori egin deutesoc. Erantzunak, motxa behar dau izan. Baina frai-
le horrek, eskuak eskapulariopean alkarganaturik, bare bare
dino:

- Gure Ordenak ez deusku...

- Ixildu zaitetz. Erantzuna «bai» ala «ez». Itaune berbera, eta
aizipetuak jardetsi:

- Ez deusku gure Ordeneak...

- Ixiltzeko! Bai ala ez, soilik. Zu zeu nazionalista...

- Barruko sentipenik agertzen, ez deusku...

- Zagoz ixilik! Jesarri zaitetz!

Akesolo euskal-liburutegietako sagua dala esan daroe. Izan
be, gure aurretikoz azken mendeetan idatzi ebezanak, eta gal-
du ez direanak, hau da, non zer dagoan, aspalditxutik dakiana da.
Euskal-alorrean buru belarri ibili da, eta dabil. Etenik ez dauan
jarduncan. Lana ugari, txaloak urri, diru-laguntasunez erdimerdi,
omenez aterri. Horraitino, urte bi laster, hor Derion Labayru
Ikastegiak gorazarre egin deuto, udako euskal-ikastaroko ele-
der-jain.

Linok idazle zereginean, hainbat arlo ezbardinetan jardun
dau. Horregaitik ez da errez ordu lauren bat haren ekin luzea
zehaztasun berezietan azaldutea.

Euskal-eremuko idazleak, laneginak, hizkera-etzabaidak e-
txeko izan jakoz; eta eremu besteriko lanak eta idazle asko be,
ikasi ditu. Elertiarekiko lanak eta historiarekikoak be, euskeraz
nahiz beste hizkuntzetan arakatu ta astindu ditu. Eta ahazturiko
edo bazterturiko lanak be bai. Sinismen-gaiak, moralekoak, he-
mengo ta atzerriko pertsonaiak eta euren emoiak zuzen edo i-
tzulpenez jorratu ta argiztatu.



Akesolok lanik ugari, bere izen abizenek lotuak argitara arren, beste hamazazpi izenorde firmatza erabilia dogu. Lanen mordo hori... itzulpenak eta Hiztegia izan ezik, udabarri honetan, liburu handi bitan argitaratuko deusoez. 1927 urtetik 1988 arte, 320 idatzi inguru.

Hiztegia, 9 liburuki, 16 urteko saila, izan dau buztarririk astunena, berez luzea ta azkenik ez dauana dalako. Hiru lagunek erabilen zeregina, harrezkero, zelanbaiteko beste laguntasunez, berak izan dau osorik eskeini ahal izateko zoria, neketa ta grazia.

Linok euskerea landu dabenean ezaguera sakon zabala dau. Idazleentarik bakotxak berak zein gai ikutu ta mamurtu dauan, ta zelako hizkerea eratu ta erabili. Ganera zelan, artez ta egokitasunez ala trakets eta baldarkiro. Arcan, ikerketak edozein euskalkitan egin ditu.

Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan dana. Harako Demostenes to-tel-motek edo berbartuak bere hizkerea trebe bihurtu nahirik,

ahoan harri koskorak sartzen bazituan be, Akesolok bere hizkerea mintzatua edo idatzia jasean erabilteko, ez dau harri koskor anaforikoen beharrizanik, bere pentsakera iturburua euskalduna dalako, ez itzulpenekoa, ez ekarria, etorria baino. Beraz, Linnoren prosa, ezaguna da, beste inorenagaz nahastagatxa, zinez. Soinua maite dauanez, hizneurruak be landu ditu, berez edo itzulpenez.

Arean, gehienbat, ez dau bere eleder sortzaileen artean gailendu. Halan be, lan pitxi ta erakargarriak, mamintsuak laga deuskuz. Berbarako, «Atx-ostetik Atx-ostera» kronikatxoan, zein lau, zein atsegin, zein gozaro diharduan! Entzun deiogun: «Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste aldetik ekarten euskuen umeai Marie Basokoren ogia. Atxostetik agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea. Atxostetik etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten. Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten gendua zan: gure erria baño askoz geiago ez. Mundu horren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko-aldeko mendierrezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta an, urrin baten, Burgos aldera edo, lausopean galtzen ziran lurrean balztunea, guretzat izen bakoa. (...) Mendian zear ibili oi ziran gure antxiñakoak. Olanxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat ezkontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko».

Akesolo ikerlan amaibakoan ibili izan da, lan berekietarik bereiz. Hainbat idatziri buruz bere eritxia agertu, hainbat lan aztertu eta baita aztertu be. Aztertu ta zuzendu beharra dakusanean, zirujau itzela da. Merezki dabenei, lepo betena emoten ez da makala. Eta beharrik, zorionez, txaloak joten sarritan ez da azkena izaten.

Hizkuntza ta gramatika arloetan nekatuezina, gure elede-rraz eta idazleez artikulua artikulua, labur eta luze. Zenbat hi-



tzaurre, aitzin-solas, aurkezpen! Eta hizkuntza ezbardinetarik itzulpenak, elemania. Liturgia euskeraratze nekeetan zama astuna luzaro izan dau.

Bakotxari berea emoten zalea, hona hemen haren idazkitxu batzuen idazpuru zorrotzak: Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin; kontu, adarjotzaileekin; Itsuen errian... ikusi nai ez dauana errege; Jorrazaille batzuk jorrazten; Lauaxeta ez da ain erdal-bertsogille txarra; eta... Itzaldi luzeekin, kontu.

Ixiltzen direanen edota betiko ixildu direanen alde azaltzeko prest egon ohi da aita Linoren gogoa, eta bihotza. Labur zurrian, bere berbakaz, ohar jakingarri bi.

Don Manuel Lekuonak 1970 g. urtean buru zan bilera harako *kontu ematea* egin ebala, baina egokion aldizkarian ez dala argitaratua izan. Bestalde, Liturgia euskeraz egiten hasi zireanean, Lekuona gertatu zan *Batzordeko buru, ta Iparraldeko norbaitek, Orduen Liturgia* lanetako euskereaz salakuntzea egin eban. Li-

turgia osoarekiko hizkerez be, salakuntza bat eta geroago beste bat gogorragoa Lekuona autatu eta gogor joten ebala, eta ez edozeinek egina, Koldo Mitxelenak baino. Mitxelenak erantzuna behar ebalakoan neuk urtean neban Batzordearen eta Lekuonaren alde; eta irain hori zuzendu beharra, gogoratu neutsan Mitxelenari. Aztuta ete eukazan Arantzazuko Batzarreko berbok: «Batasuna... Liturgian ez... oraindik ez?»

Baina Akesolok hauxe be generatzen dau: «Eta esan daigun Mitxelenaren alde. Hurrengo artikulua baten, bere salakuntzea atzeratu egin eban, Batzordeak eginiko *Orduen Liturgiaren* euskerea ederra ta jatorra zala garbi autortuz. Asarrekortxo zana noizik bein, baiña ba ekian bere zenera etortzen eta oker esanak zuzentzen».

Bigarren oharra. «Azkue aita-semeen arazotxu ori, argi jarteko alegina orain amar urte egin genduan arren, alperrekoa izan da. Alan-olango kritikazko arri bat jaurtiten danean, batez be norbaitzuen aurka bada, bide luzea egiten dau, guzur argia ta uste ustela bada be». Horrezaz, Akesolok itaune estu eta mingots hau egin dau: «Nok idatzi ete dau Mitxelenaren izenean argitaratu dan Hiztegi Orokorra aurrean darian Bibliographia? (...) Hiztegi Orokorra argitaratzen asi barriari ez deutso mesede andirik egin, aren Bibliografian *Parnasorako Bidea*-ri eta aren argitaratzaileari dagokona idatzi dauenak. Egia eztanari indar barria emon deutso, eta R. Maria Azkue zanari, euskal-iztegitza bide zuzenean ipini ebanari, bear ez dan iraiña egin. Ordu dogu «somero cotjo» egileen ezkuetatik auzi au aterateko».

Noizbait, hogetabost urte joan dira, Akesolo euskaltzain oso egin gura izan eben. Baina berak ezetz eta ezetz. Halan be, Euskaltzaindiari, urgazle da ta, hainbat lan eskeini daroatso. Ostera, ba dau kezka ta ardura jarraikoa beste gizatalde ikastun baten, arean bere, «Euskerazaintza»-n lemazaiña da ta.

Eta azkenik, laburminaren laburminez, guzti hau prosaiko edo berbeta lauezko izan ez dadin, beioakoz, urri, doinu barik, hiru bertso, zortziko txikian.

Jakingura zuzenez
lanerako erne,
urteak gorabehera
prest esku ta barne;
gure euskal-liburuez
irakasle errime,
idazle zaharrak ziur
Linogaz konforme.

Egitadetan luze,
barriketan labur
Bizkaiko burdineaz
esaera zuhur;
alorra hautetsi ta
lur gogor nahiz samur,
goldea artez daroa
ez gatzera makur.

Agur eta ohore
bero ta goraki
adionez Dimako
seme argiari,
Jaungoikozale eta
euskal-zerbitzari...
Bizitza biontzat
izan dau opari.

Eusebio Erkiaga
Abandon, 1989-IV-7

*Itzaldi oneri egiñiko txaloen ostean, J. Azpillaga asi zan bertsoan:
(Euskadi Irratiko Ane Albizuk grabatu zituen bertso oneik; eta emen
berari nere eskerrak):*

Aldundiraño etortzeagaz
ez gara gaizki erori
gizon aundi bat omendutzea
oso ederra da ori.
Leenengotan ikasi ditu
ez dakit zeinbat istori.
Danak ederrak beste gauzarik
ez dautzat entzun inori.
Egun on zuoi ta zorionik
Akesolotar Linori.

Dima errian jaioa da au
ta Akesolo asia
Karmeldarretan igaro al du
gerostiako bizia.
Buru argiko gizona berez
gero asko ikasia.
berarekin dauka itz egiteko
ta idazteko grazia.
Gaur egin jakon omenaldia au
zeukan ondo merezia.

Akesolotar Linok len ditu
idazle aundien fama,
bi gauza ditu berezienak:
otoitza ta idazlana.
Idazle eta bertsolariak
beti eman du daukana;
jaiotzatikan artu genduen
illarteraño zama.
Danon artean salbatu daigun
gure cuskera laztana.

Cero J.A. Pradera, Bizkaiko Aldun Nagusiak, L. Akesolo, Bizkaiko seme argiari agertu eutzan Aldundiaren gogo ta poza:

Entzun dogu Eusebio Erkiaga Jaunaren hitzaldi ederra, ja-kinduriz eta maitasunez betea, eta ez naz ni hasiko Aita Lino Akesoloren gorespenik egiten, baina dana dala ezin neike aipatu barik itxi hainbeste urtetan egin dauan lan neketsua, bizitza osoa eskeini dautso euskereari, baita gure kultureari be, eta behar luze eta asperbako horretatik urten dabe hainbeste artikulu, kritika, itzulpen eta emaitza ederrak.



Eta horretatik azkenengoa, eta beharbada onena, egunotan argitaratu da, «EREDUGAIEN HIZTEGIA» nolabait deitu daiogun euskeraz. Munduan lan haundirik bada, horixe da benetan haundia, gizon batek egiteko itzelezkoa, erraldoien lana, eta pozgarria da, Euskal Herrian, oraindino, horrelako pertsonak doguzala ikustea, euskerearen alde apaltasunean eta zaratarik egin barik egundoko lana egiten dabenak.

Asko zor dautsegu gizon eta emakume horrei, eta Aita Lino Akesolo da horretako bat. Ez dautso inori ezer zor, guk oster, asko zor dautsogu.

Horregaitik, Bizkaiko Foru Aldundiak bere obligazioa bete baino ez dau egiten, eta pozik gainera, Aita Lino Akesolori omenaldi hau eskeintzen dautsonean, bere eta bizkaitar guztion izenean eskeintzen dautso. Gainera, euskaltzale guztiak be, gaur gugaz eta Aita Lino Akesolori egiten dautsogun omenaldi honegaz bat datoz.

Eta omenaldi honetan, beru barrutik eta bizkaitar guztion izenean, berba labur hau esan gura neuke: «Eskerrik asko Aita Lino». Hain gazterik Euskal Herria landu dozun horri, hainbeste egoera txar Euskal Herriaren alde igaro dozun horri, hain ederto gure euskeraz eta gure bizkaieraz idatzi dozun horri, barrero be «ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO» bihotz bihotzez.

Jose Alberto Pradera

Eta azkenez L. Akesolo berak artu eban itza; asieran abotsa zertxobat barruko malkoekin itota, beste Dimako seme ospetsu baten jakitun egin ginduzan:

«Eskerrik asko» bikotxa.

Jaun-andreak:

Egia esan, emen ikusten dodana sinistu eziñik nago. Ezin dot neure arrimenetik urten. Nondik nora niri omenaldia dalako au, eta Bizkaiko Aldundiaren izenean edo, bardintsu dana, Bizkai osoaren izenean egiñik?

Ez dot ukatuko neure bizian zerbait egin dodala Bizkaiaren alde, eta Euskalerrri osoaren alde bere bai, bein Bizkaiko euskeraz idatzita, edo urrango baten beste nonbaiteko eukera moduan, non aurkitzen nintzan eta angoxe euskerea erabillita; bein alde bateko edo besteko euskal-idazleren bat illunpeti atereaz, beste bein edozein erritako idazle gitxi esagutuen bat obeto ezaguerazoaz, bein Bizkaiko edo non-naiko semeen baten jayorria eta goraberak aztertu eta argitara ekarriz.

Euskeraz eta bai erdaraz be, arlo askotan egin izan dot neure lantxoa, erriagazko arloetan eta Eleizeagazko arloetan, esaterako, Liturgia barria euskeraratzen. Bear bada, naikoa eta lar entzun dozue Erkiaga lekeitiarraren agotik.

Dana kontua artuta bere, ez dot nik ikusten gaurko omenaldi au artzeko besteko lanik egin dodanik. Ez, urrik emotekorik. Egin dodan guztiaz, Kristok apostolui esan eutsen lez esan bearko dot: Egin bear nebana egin dot eta ez besterik. Morroi ezerezak gara. Orrenbeste zor neutsan gure erriari, eta bear bada, geiago egin bear neban. Zeuok ikusten dozue, egin dodan lana eginda bero bere, ez nagoala lanen lanez urtuta, agortuta, neure indar guztiak ekintza orretan galduta.

Ez uste orraitio, diñodana orain zuokaz dodan zorra ukatuearren diñodanik... Zordun nozue. Zordun andi. Eta itz gitxitxoaz bada bere, euskereak daukazan itz labur bigaz autortu eta agertu nai deusuet neure zorra: Eskerrik asko.

Eskerrik asko, bai, Aldundiko gizon argiai, batez bere, Kultura Arloko arduradunai. Eskerrik asko Eusko-Jaurlaritzako eta Bilboko Udaletxeko ordezkari zareenoi. Eskerrik asko, omenaldi oni itxura ospetsuagoa eta irudi ederragoa emoteko, ona agertu zarren guztioi. Eskerrik asko biotz-biotzez.

Baiña itzi egidazue omenaldi au beste Bizkaiko seme argi bati eskintzen, eta aregaz erdi bana egiten. Neure errikoa da, neure jaiotzako auzo berekoa. Ez da gure egunetakoa, bai orain laureun urte dala bizi izana. Bizkaiko seme izatea arrotasuntxoaz autortzen eban beti eta edonon.

Kaligrafo ospetsua da: Pedro de Madariaga, izenez Bere kaligrafiazko liburuan, *Honra de escribanos* izenekoan, kapitulu bat sartu eban euskerazko ortografia eta euskal-fonetikako lege batzuk argitzeko, iñozko lenengoz Alkar-izketazko liburu orretan, euskaldunen eta erdeldunen artean sartzen dituen alkarren arteko autuetan, erdeldunen ganetik ipinten ditu Bizkaiko semeak luma-lanetan, eskribau izateko zaletasun eta balioan. Liburu orretan euskaldunek erdeldunen ganetik gelditzen dira beti. Arrotxo agertzen da bera Bizkaiko seme izateaz, gure Foruak Bizkaiko semeen nortasunari deusan itzal eta begirunea diralata. Bizkaitarrak luma lanetara zaletu gura leukez. Alderdikeriak itxita, Ganboa ta Oñaztarkeriak aitzu eta aldunduta, bake-giroan osoan luma-lanari ekitea opa deutse bere euskaldunai. Min artzen dau, miña ta asarrea erakusten ditu euskaldunka, Bizkaiko semeak euren alkarregazko artu-emonetan, alkarri egin bearreko sal-crosketako kartetan erderara joatea, euskera erabilli bearrean. Ez dagiela gero erdaldunak uste euskereak ez dauala balio libururik idazteko, argitaratutako liburuak bere egonik euskeraz.

Pedro de Madariaga au Obako semea da. Axmutil atxaren azpian dagoan auzokoa. An dau Madariagak bere izeneko etxea, oin-etxea: «Madariaga, antiquísimo solar de Vizcaya». Eta Oba (Oa) ori ez da beretzat edozer, «principalísimo pueblo de Vizcaya» baiño. Orrenbesteraño daroa bere auzoari deusan maitasuna. Eta gizon ain euskalzale eta ain jakinzale oni, nire ustez, ez deutso ez Arratiak ez Bizkaiak zor jakon autormenik egin.

Ez dauztazue esango omenaldi onetara lagun txarra dakar-
danik. Berak salatu zituen pekatu batzuetan ez jausteko alegin
egin dot beñik bein. Euskaldun izateaz lotsatu barik, luma-
lanctan ckin izan dot, euskerearen onetan, Bizkaiaren eta Euska-
lerrri osoaren alde. Ez deustazue esango lagun eta kide txarra
ekarri izan dodanik gaurko omenaldi au erdi bana egiteko.

Orain dala laureun urte bizi izan zan bera. Eta aren gurariaz
bat egiten dot nik neure gaurko guraria: aren mezua geuretu eta
ari jarraituz, alderdikeri guztiak atzean itxita, aiztuta, bake-giroan
bizirik, emendik beste laureun urtera bere, euskaldun irauunik,
alkartasun onean jarraituko al dogu euskaldunok bizitzen, eta
munduan zear oraiñarte izan dogun izen ona zabaltzen.

(Obako seme bion izenean), eskerrik asko.

L. Akesolo

Itzaldi onen erantzuna txalo beroak izan ziran.

Euskaralogo aundi batek bakarrik artu leikezan txalo beroak!

*Gero, alboko areto eder baten aorako atsegingarri diran gauza go-
xoekin alkarrizketa gogotsuan omenaldia luzatu genuen.*

J.U.